



Bideko
hitza
Euskal
poema
modernoen
antologia
(1951-2019)

Juanjo Olasagarre



Leinuaren Hitzak

Antologiak nahi adina egin daitezke. Eta nahi adina poeta eta poema sar daitezke antologietan. Nahi adina utz daitezke kanpoan. Hori bai, antologia guztiak dira erretratu bat: antologia egilearena, lehenengo; unearena, bigarrenko; poetena hirugarrenko; garaiko iritzi estetikoena, laugarrenko; eta, gizartearen zeharkako erretratu, azkenengo.

Ezagutzen ditudan Euskal Poesiaren biek, Jon Kortazarrenak (poeta bakoitzaren azterketa den neurrian antologia da) zein Koldo Izagirrerenak, horixe erakusten dute begiratzen jakinez gero antologia egileak aukeratze irizpideak papereratu ez baditu ere.

Berez eta beraz, hitzaurre honen helburua irakurleak hemen leituko dituen poemak aukeraketa zuritzera joan beharko litzateke segidan baina, hori baino lehenago, hainbat kontsiderazio egin nahi nuke; horiek ere, segur aski, antologia egilearen erretratu.

Galde diezaiozun geure buruari itaun potolo hau: Zer da poesia? Milaka dira definizioak, baina definizio horren ertz batekin denok egingo genuke bat: asko irakurtzen ez den generoa dugu poesia; eta oraingo, egotz diezaiozun horren errua poesiari berari, alegia, zeinua eta esanahia bata bestetik gero eta gehiago urrunarazi dituen artearen ildo historikoari, zeinak, bestalde, arte guztiei eragin baitie.

Errealitatetik urruntze horrek erreferentzialtasun falta eragin du, eta, askotan, poema bera da zeinu eta esanahi, ia hieroglifiko bilakatzeraino Erants diezaizkiogun horri gure-gureak diren arazoak: batuaren sorrera eta hedatze berantiarra —zeinak aurreko literatura linguistikoki urruntzen duen—, diglosia, bertsolaritzaren nagusitzea, eta eskolan ikasitako gauzek nerabeengan sortzen duten arbuioa. Eta erants diezazkiogun orain mundu-munduko diren ara-

zoak: denboraren ardaila, poesiaren, eta, oro har, literaturaren eta artearen garrantziaren galera gure gizartean...

Geroz, erabaki beharko dugu poemak leitzea, ulertzea eta gozatzea, eskalada egitearen pareko kirola dela egun. Eta hona beraz, kontsiderazio orokorra aitzakiatzat harturik lehengo irizpidea, antologia hau ez da Euskal Poesiaren antologia bat, baizik eta euskarazko poemen antologia bat. Zentzu horretan, poema autoreen izenik gabe argitaratzerik ez zegoenez, autoreen izenpean argitaratu ditugu, poemez gain autoreari begiraturik. Horrek, halako antolaketa ez sistematiko batera eraman nau: autoreen lehen poema-liburuaren argitalpen-urtearen, autorearen adinaren eta poemen argitalpenaren araberako batez besteko bat eginez sortu dut hurrenkera bat. Bestalde, poema antologia honen helburua irakurlea poesia irakurtzera zaletzea denez, esanahi argia eta garbia duten poema bilatu ditugu: alegia, dei diezaiegun —badakit adierazpide hau zaku bat dela— poema errazak, erreferente argia dutenak. Horrek ez du esan nahi poema nahasiagoek, erreferentzia ilunekoek, hermetikoek, irakurtzea merezi ez dutenik, edo kalitaterik ez dutenik —zaku handia da adierazpide hori ere—, baina guk poema errazei eman diegu lehenetasuna arestian aipaturiko arazo horiek arrazoi. Ez hori bakarrik: bi poemaren artean aukeratu behar izan dudanean, musikatua izatea erabili dut irizpide modura, horrek ere poemen irakurtzea eta ulertzea erraztuko duelakoan.

Beraz, ulergarritasuna bermatu nahi dut. Izan ere, guk buruan ditugun gazteak —alegia, poemetara modu behartuan hurbildu behar diren horiek— ez dira poemen zaleak: ez, behintzat, formatu honetan datozen poemenak.

Leinuaren hitzak behar ditugu, eta horixe litzateke antologia honen beste helburuetako bat —leinuaren hitzak sortzea—, nahiz eta jakin leinua bakoitzarendako gauza desberdina dela. Leinuaren hitzak sortzea hil ala biziko kontua da gure Kixmi Sindromea arin-

Mutilak²⁵

Koldo Izagirre

mutilak horrelakoak dira
zabarrak alferrak traketsak
ongi ezagutzen ditut
beren zakilaren atzetik doaz datoz
erdi aroko zaldunak bezain
kontu miresgarriak entzun dituzte
eta uste dute neskek lapurtu nahi dieten
altxor bana daukatela hankartean

mutilak horrelakoak dira
ongi ezagutzen ditut
mehatxu txatxuak banatzen dituzte
zuen komunetan sartzen dira
marrazki zatarrak egiteko
eta balentria handi bat burutu balute bezala
egiten dute irri gero ihesi zoroan
ez diote begirik elkarri ez lotsatzearren

mutilak horrelakoak dira
ongi ezagutzen ditut
futboleak aritzen dira panpina buruekin
borroka egin behar dute beren artean
buruzagi anker baten bila dabilta
letra txarra eskuak zikin galtzak arrastaka
harrotu egiten dira errieta emanda
zabarrak izan nahi dute alferrak traketsak

25 *Rimmel*. Susa, 2006

mutilak horrelakoak dira
ongi ezagutzen ditut
neska entzun eta goitikoak etortzen zaie
beldur dira hitz samurra ahotan hartzeko
eta burla egiten dizuete
ankerrak dira baina sufritu egiten dutelako da
sekretuz beteak zaudetela ikasi dute
sumatzen hasiak dira erdi arokoak direla

mutilak horrelakoak dira
ongi ezagutzen ditut
zabarrak alferrak izan nahi lukete traketsak
sinets egidazu
banaka neskak bezalakoak dira
baina ez dute bakarrik nahi
taldean behar dute ikara batean bizi dira
kausarik gabeko zaldunak balira bezala

neskak horrelakoak zarete
ergelak mengelak marigelak
sinets egidazu
ongi ezagutzen zaituztet
gure zakil gainean hankalatraba
buruzagi ankerrenaren esanetara
zuei burlaka bazterretan ni eta nire koadrila
sinets egidazu mutilak horrelakoak gara

Bernardo Atxaga

Fas fatum ene lagunek fadoa²⁶
zein tristea den diote,
moito obrigado
entzuten da bazter batetik;
53 urteko gizonak lanezean
badu gidatzeko dokumenta
edozein lan hartuko luke
premia larrian;
beharbada
dagoenerako bota du burua, dio,
(maite haunat),
bota ditu kutxarea, ezpata,
faloa esan nahiko duzu;
(nik ere maite haut)
utzi du betiko leihoa
eta bildu zaio odola urarekin.
Arrazoa daukan,
menturazaleen sasoia amaitu den;
Lurrak orain ere
infinituak ditun haur-oin ttikientzat,
eta atzo bezala esnezko ibaiak
obsesiboki bejetalen azprietatik;
baina non dira heroiak,
imajina ezina dun beste Lope Agirre bat;

26 *Etiopia*. Pott liburutegia, 1978. Argitalpen honena: *Bernardo Atxaga XX. Mendeko Poesia Kaierak*. Susa, 2000

gau-zomorroen gisa akabatzen gaitun;
Gure azken orduak:
lore ximelduen enpalagoa, asfixia,
zikina aurkitzen dinagu krubitxeta
konjeladore made in Germany horretan.

Zure eskuak nirekin⁴¹

Juan Kruz Igerabide

Nirekin datoz zure eskuak
ukitu ninduzunetik,
eskuetan esku zaitut
edonora noalarik ere.

Nire eskuetan zureak,
zure eskuetan nireak,
zein zeinen, biok bien.

Etorkizuna eskuetan dugu,
laztanez laztan bideratzeko,
laztanez laztan
txirristaren hondora iristeko.

41 *Maita poemak hasiberrientzat*. Denonartean, 2016

Ohar laburrak 1⁶⁶

Miren Agur Meabe

Atzo izara bat erre zitzaidan.
Erre egin nuen lisaburdinaz.
Ogi xigortuaren koloreko triangelua estanpatu nion
telebistaren erruz.
Beti izaten dut piztuta sukaldeko telebista txikia
arropa lisatu behar dudanean:
gerrako haurtxo beltz bat
ama hilaren titia miazkatzen ari zen.
Ilezko korapiloa egin zitzaidan eztarrian.

Ez zait ahaztuko,
esneak sujetadorea umeldu zidan eta.

66 *Azalaren kodea. Susa, 2000*

Maiatza⁸⁸

Kirmen Uribe

Begira, sartu da maiatza,
Zabaldu du bere betazal urdina portuan.
Erdu, aspaldian ez dut zure berri izan,
Ikarati zabilta, ito ditugun katakumeak bezala.
Erdu eta egingo dugu berba betiko kontuez,
Atsegin izatearen balioaz,
Zalantzekin moldatu beharraz,
Barruan ditugun zuloak nola bete.
Erdu, sentitu goiza aurpegian,
Goibel gaudenean dena iruditzen zaigu ospel,
Adoretsu gaudenean, atzera, papurtu egiten da mundua.
Denok gordetzen dugu betiko besteren alde ezkutu bat,
Dela sekretua, dela akatsa, dela keinua.
Erdu eta larrutuko ditugu irabazleak,
Zubitik jauzi egin geure buruaz barre.

Isilik begiratuko diegu portuko garabiei,
Elkarrekin isilik egotea baita
adiskidetasunaren frogarik behinena.
Erdu nirekin, herriz aldatu nahi dut,
Nire gorputz hau albo batera utzi
Eta maskor batean zurekin sartu,
Gure txikitasunarekin, mangolinoak bezala.
Erdu, zure zain nago,

88 *Bitartean esku heldutik*. Susa, 2001

Duela urtebete etendako istorioa jarraituko dugu,
Ibai ondoko urki zuriek uztai bat gehiago ez balute bezala.

1977ko urriko gau bat¹⁰²

Leire Bilbao

Urriko gau batez aita eta ama euren logelan,
oraindik ez nire ez beste inoren
aita eta ama ez direnean.

Gizonak jertsea erantzi du:
aulki gainean utziz burua kendu dioten hilotza.
Andreak armairuan sartu ditu galtzak eta alkandora:
pertzatik zintzilik beste emakume urkatu bat.

Bietako batek ere ez dio komodako ispiluari begiratu.
Maindire artera sartu dira
bakoitza bere ohe ertzetik:
mugaren alde biak eta aduana.

Hezetasunak hartutako pareta zatia
irudimenez margotzen ahalegindu da andrea.
Hotzak ditu oinak. Kuzkurtu egin da
gizonaren sabelpera, beroa da haren aho-lurruna.

Argiak itzalita izarak ez dira zuriak;
gorputzak bai, garbiagoak dira.
Andreak eguna du nahiago.
Gizonak gaua.

Urriko gau hartan aita eta ama
oraindik ez nire ez beste inoren
aita eta ama ez direnean
desiratzera behartuta ezkon-ohean
nor bere bazterrean
loak hartzeko zain.